

JUSTIZIA MINISTERIOA

XEDATU DUT:

11018 *Maiatzaren 25eko 660/2007 ERREGE DEKRETUA, etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrala arautzen duen martxoaren 5eko 355/2004 Errege Dekretua aldatzen duena, Erregistro zentrolean dagoen informaziorako sarbidearen inguruan..*

Martxoaren 5eko 355/2004 Errege Dekretuak etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrala arautu zuen, koordinazio sistema bat ezarriz, beronen arabera epaitegi eta tribunaletako idazkariek etxeko indarkeriaren biktimentzako hartzen diren babes aginduen berri eta dagokion Komunitate Autonomoak izendaturiko koordinazio puntuan eginiko euron inguruko eskarien berri eman behar dutelarik, hauek biktima hauei loturiko gizarte-babesaren esparruan eskumenak dituzten zentro, unitate, organismo eta erakundeei ebazpen hauen inguruko jakinarazpena emateko kanal bakarra eratuko dutelarik. Maiatzaren 9ko 513/2005 Errege Dekretuak aipaturiko arau hori aldatu zuen komunitate autonomoetan ezarritako koordinazio puntuei legediak egozten dizkien eginkizunak kontuan izanik, berauei Erregistroan dagoen informaziorako sarbidea ahalbidetuz. Lagapen honek, gainera, Izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2.a) eta 11.2.d) artikuluen babesa zuen, lehenengo Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikuluko (artikulu honi uztailaren 31ko 27/2003 Legeak emaniko idazkeran) 5. eta 8. atalei lotua.

Etxeko eta genero indarkeriaren bilakaerak biktimen babes honetan sakontzea gomendatzen du, lehenik eta behin era honetako jokabideak ekiditeko neurriak hartuz eta, bigarrenik, tratu txarrak ematen dituenak bere jokabideagatik zuzeneko edo zeharkako onuraren bat izatea saihestuz. 2006ko abenduaren 15eko Ministro Kontseiluaren Akordioak, bere premiako neurrien katalogoan, Gobernuaren ordezkariaren eta azpiordezkaritzetan biktimen babes unitateak sortzea aurreikusten du, eta babes honen baitan elementu garrantzitsu gisa sortzen dira, etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralaren, Gizarte Segurantzaren eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren arteko informazio trukeak eta koordinazioak pentsio sorkuntzan edo bestelako gizarte onuretan nahi ez diren ondorioak ekiditen dituzten bitartean; eta guzti hori, Genero Indarkeriaren kontrako Babes neurri Integraleko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren markoaren barruan.

Azkenik, idazkari judizialak Erregistroan dagoen informaziora sarbidea izateko izenda ditzakeen bulego judizialeko funtzionarioen eginkizun kopurua handitu egiten da, gehienezko kopuruaren inguruan orain arte zeuden murrizketak ezabatuz, honek etxeko indarkeriarako epaitegietan izaten ari den jardueren areagotzea arrazoiz justifikatzen duelarik.

Errege dekretu honen txostena egin dute Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak, Estatuko Fiskaltza Orokorrak eta Datuen Babeserako Agentziak, Hori dela eta, Justizia Ministerioaren proposamenari jarraituz eta Administrazio Publikoetako Ministroaren onarpena jaso ostean, Estatuko Kontseiluarekin bat etorritik eta Ministro Kontseiluak 2007ko maiatzaren 25eko batzarrean eginiko deliberazioaren ostean, honako hau

Artikulu bakarra. *Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrala arautzen duen martxoaren 5eko 355/2004 Errege Dekretuaren aldaketa.*

Martxoaren 5eko 355/2004 Errege Dekretua, etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrala arautzen duena, jarraian ageri bezala idatzita geratzen da:

«8. artikulua. *Erregistro zentrolean dagoen informaziora sarbidea izatea.*

1. Erregistro zentrolean dagoen informaziorako sarbidea ondorengo subjektu eta xedeetara soilik mugatuko da:

a) Ordena penaleko organo judizialek, familia prozedura batez arduratzen diren ordena zibileko organo judizialek eta Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegiek kausa penalak eta zibilak izapidetzeko behar duten informaziora sarbidea izango dute, eta baita aipaturiko biktimentzako babes neurriak hartzeko, aldatzeko, exekutatzeko eta euron segimendua egiteko behar duten informaziora ere, dagokion idazkari judizialaren bitartez edo beronek izendaturiko eta bulego judizialera atxikita dauden funtzionarioen bitartez. Izendapen honek ez du, inongo kasuan ere, errege dekretu honetako 5. eta 6. artikuluek idazkari judizialei ezartzen dizkieten betebeharrak eta erantzukizunetan eraginik izango.

b) Ministerio Fiskalak izaera penaleko eta zibileko kausak izapidetzeko behar duen informaziora sarbidea izango du, eta baita aipaturiko biktimentzako babes neurriak hartzeko, aldatzeko, exekutatzeko eta euron segimendua egiteko behar duen informaziora ere, eskumena duten organo jurisdikzionalak fiskaltzetan lan egiten duten fiskalen bitartez.

c) Polizia judizialak Erregistro zentral honetara sarbidea duten portaeren jarraipen eta segimenduen inguruan burutzea eskatu zaizkion jardueren garapenerako beharrezkoa duen informaziora sarbidea izateko aukera izango du, eginkizun hauek burutzen dituzten baimendun funtzionarioen bitartez.

d) Komunitate autonomoek organo jurisdikzionalak hartutako babes neurrien, behin-behinekoen zein behin betikoen, konplimendu eraginkorra bermatzeko beharrezkoa duten informaziora sarbidea izango dute, koordinazio puntu bakoitzean izendaturiko arduradunaren bitartez, lehenengo xedapen gehigarriak adierazten duen bezala, edota, bere kasuan, aipaturiko arduradun horrek izendatutako pertsonen bitartez.

e) Gobernuak ordezkariak eta azpiordezkaritzek organo jurisdikzionalak hartutako babes neurrien, behin-behinekoen zein behin betikoen, konplimendu eraginkorra bermatzeko beharrezkoa duten informaziora sarbidea izango dute. Gobernuak ordezkariak kasuan, emakumearen kontrako indarkeriaren kontrako Koordinazio Unitateko arduradunak edo beronek izendaturiko pertsonak gauzatuko dute informaziorako sarbidea; Gobernuak azpiordezkaritzek kasuan, emakumearen kontrako indarkeriaren Unitateko arduradunak edo beronek izendaturiko pertsonak gauzatuko dute informaziorako sarbidea.

2. Erregistro zentralako arduradunari dagokio baimendutako erabiltzaileen zerrenda bat burutzea, zein datutarako sarbidea duten adieraziz.

3. Erregistro zentratean dauden datuetarako sarbidea telematikoki gauzatuko da, identifikazio eta egiaztapen prozeduren bidez. Sarbide sisteman jasota geratu beharko dira erregistroa sarbidea izan duten erabiltzaileen nortasuna, kontsultatu dituzten datuak, sarbidearen momentua eta kontsultaren arrazoia.

4. Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrateko arduradunak gutxienez astean behin emango die Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari, Marinako Gizarte Institutuari eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Pertsonal eta Pentsio Publikoen Kostuen Zuzendaritza Orokorrari aipaturiko Erregistro horretan erregistratzen diren zigor epai irmo bidez amaitu diren erailketa delitu mingarria burutzeagatik (edozein eratan burutu delarik eta edozein lesio eragin dituelarik) prozeduren inguruko informazioaren berri, delituagatik kaltetua izan dena erasotzailearen ezkontidea edo ezkontide ohia edo berarekin antzeko afektuzko harreman baten bidez lotura duen edo izan duen pertsona bat denean, Genero Indarkeriaren kontrako Babesneurri Integraleko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusitakoa betearazteko helburuarekin.

5. Estatuko Administrazio Orokorrak eta justizia alorrean eskumena duten komunitate autonomoek, Gardentasun Judizialaren Planaren markoaren baitan, Erregistroan dauden datuen inguruko estatistikak garatu ahal izango dituzte, informazioan aipamen pertsonal oro saihestuz eta Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoak eta bere xedapen gehigarrietan ezarritakoak kontuan izanik.»

Azken xedapen bakarra. *Indarrean sartzea.*

Errege dekretu hau «Estatuko Aldizkari Ofizialean» (BOE) argitaratu osteko egunean sartuko da indarrean.

Madriren, 2007ko maiatzaren 25ean.

JUAN CARLOS Er.

Justizia Ministroa,
MARIANO FERNÁNDEZ BERMEJO